

Laburbilduz...

DBHko, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako kristau ikastetxea gara, Diocesanasek eta Jesus Obrerok sortua eta inspiratua. Inguruko gizarte eta enpresekin arduratsu jokatzeko dugun hezkuntza-komunitate gara: eta jakitunak, trebeak, errukitsuak eta konprometituak diren pertsonak hezten ditugu. Gainera, lan-mundurako trantsizioa eta bizitza osoan zeharko heziketa errazten ditugu.

Zeintzuk dira EGIBIDEko DBHko ezaugarri nagusiak?

- **Tutoretza pertsonalizatua eta orientatzailea**
- **Proiektuen bidezko ikaskuntza** eta klase teorikoen arteko konbinazioa, bi metodologia hauen alderdi indartsuenak hartuz.
- 1x1 sistema gailu digitaletan (**Chromebook**)
- **Aniztasunari emandako erantzuna** (Hezkuntza behar bereziak, dibertsifikazioa, hezkuntza osagarria...)

Non ikasi ahal duzu?

EGIBIDEko hiru *Campus* ezberdinetan ikas dezakezu, **A, B edo D** ereduan:



ARRIAGA

Jon Ander Gorbea
jagorbea@egibide.org
688 887 987



JESÚS OBRERO

Alba Estrada
aestrada@egibide.org
688 888 894




NIEVES CANO

David Benito
dbenito@egibide.org
688 887 113



DBH EGIBIDEn



www.egibide.org

Ongi etorri!

Zergatik da EGIBIDE Zure Proiektuen Eskola?

Gure eskolara **DBH** ikastera etortzen diren ikasle guztien eta haien familien bizitza proiektuak burutu ahal izango dituztelako gurekin: Unibertsitatera joan nahi dutenenak behin **Batxilergoa** bukatuta, **Erdi edo Goi Mailako Ziklo** bat egin nahi dutenenak edo haien seme-alaben garapen akademikoa ez ezik, haien **giza garapena** ere bilatzen dutenenak.

Proiektuen bidez lan egiten dugulako DBH osoan zehar, ikaskuntza prozesua askoz erakargarriagoa egiten eta ikasleei laguntzen ikasitako kontzeptu eta eduki guztiak praktikan jartzen.

“Azkenean, zeu zarelako gure proiekturik garrantzitsuena”

EGIBIDEren eginkizuna: pertsona arduratsuak, prestatuak, errukiorrak eta konprometituak heztea. Zer esan nahi dute adjektibo hauek guretzat?

Pertsona **arduratsua**: bere burua eta bere ingurunera (ingurunea) ezagutzen dituena, ezagutza horretan eta dagokion ekintzan gertakarien zergatiak, esanahiak (esplizituak zein implizituak) eta ondorioak txertatzen dakiena.

Pertsona **prestataua**: ezagutza, trebezia, abildade, gaitasun eta balio ugari bereganatzen eta menderatzen dituena.


Pertsona **errukiorra**: hurbileko zein urruneko pertsona eta taldeen egoerarekiko enpatia duena, batez ere gehien sufritzen dutenekikoa, eta, ahal duen neurrian, haien zama berariaz partekatzen saiatzen dena.

“Gizakia eta haren heziketa osoa da EGIBIDEren balio nagusia, lehenbizikoa. Erraza eta, aldi berean, konplexua da gaia”





Eleaniztasuna




Prestakuntza eleaniztuna garatzen dugu, **euskarari** eta euskararen erabilerari arreta berezia eskainita. Proiektuen bidezko ikaskuntzari esker, hizkuntzen trataera bateratua eraman dezakegu aurrera. Horretaz gain, etaparen ziklo bakoitzaren hasieran eta bukaeran maila azterketak egiten ditugu hiru hizkuntzetan gure ikasleen aurrerapenak neurtzeko gai izateko eta neurriak hartzeko.

Urrunago begiratzea



DBHko 1. zikloan murgiltze linguistikoak egiten ditugu euskaraz (1. mailan) eta ingelesez (2. mailan). Bigarren ziklotik aurrera, Alemaniarekiko ikasle trukeak antolatzen ditugu ikasgai hori aukeratu dutenentzat eta, Batxilergoan, Erresuma Batuan egiten dira aipatutako murgiltzeak.

Zeu zara




Aipatutako ezaugarri guztiek konklusio batera eramaten gaituzte: gure ikasleak izango dira haien ikaskuntza prozesuaren protagonistak eta, horregatik, gure proiekturik handiena haien giza hazkundera eta garapen akademikoa izango dira.

Pertsona **konprometitua**: dagozkion betekizunetatik harago jo eta bere gaitasun guztiak besteen zerbitzura jartzen dituena, elkartzunezko eta bidezko gizarte bat helburu duela bizi, jardun eta egiten baitu amets.

Proiektuen bidezko Ikaskuntza DBHn

Zer da proiekt2d?




- Gaitasunetan oinarritzen den ebaluaketaren bidezko irakaskuntza sistema berritzailearen alde lan egiten dugu, lankidetzako lanari laguntzen dioten **Proiektuen bidezko Pedagogia** ezartzen. EGIBIDEko DBHn metodologia honen ezartzeari "proiekt2d" deitzen diogu.
- Ikasgaien arteko proiektuak (irakasgai guztiak sartuta daude), **LOMCEk eskatzen duen edukiak** kontutan hartuz.
- **Proiektuen bidezko eskola ordu** eta eskola **ordu tradizionalen** arteko txandaketa.
- **Tribunalen eta familien** aurreko azken produktuaren aurkezpena.

Gure ezaugarriak



Tutoretza pertsonalizatua




EGIBIDE aukeratzen duten familiek batez ere arrazoi batengatik egiten dute aukeraketa hori: badakite tutoretza pertsonalizatua eta orientatzailea dela eta gure tutoreen lana eta arreta bikainak direla.

Aniztasunari emandako erantzuna



EGIBIDEn mota guztietako ikasleak ongi etorriak dira, eta arreta berezia eskaintzen dizkiegu zailtasun ezberdinak dituzten ikasleei. Errefortzu programa, NCEak, dibertsifikazioa edota hezkuntza osagarria inklusiboak dira, hau da, errefortzua da klasean sartzen dena, taldeko kohesioa eta ikasle horien integrazioa bultzatzeko.

Berrikuntza



DBHn betiko metodologiaren alderdi indartsuenak eta Proiektuen bidezko Ikaskuntza nahasten ditugu. Edukiak ahaztu gabe eta arreta berezia eskaintzen kompetentziei. Teknologia berriek eta talde lanak askoz erakargarriagoa egiten dute ikaskuntza prozesua.

Aukera



EGIBIDEn sartzeko atea irekitzeak, aldi berean, beste ate batzuk irekitzen ditu. Batxilergo zientifikoak, teknologikoak edo humanistikoak, Erdi eta Goi Mailako Zikloak eta orain ere unibertsitate-gradu berriak, Deusto-EGIBIDE aliantzari esker.

Garapen akademikoa eta pertsonala



Etapa osoan zehar, ikasleen garapen akademikoaz gain, beraien giza garapena ere bilatzen dugu, hau da, hezitzaileen eta ikasleen konpromiso soziala bultzatzen dugu, urtean zehar ekintza ezberdinak eginez gure hiriko biztanleriari laguntzeko.

Gela baino gehiago



Gure goizeko ordutegiak (8:15-14:15) ematen digu aukera ikasleei laguntzeko hainbat arlotan arratsaldeetan: errefortzu klaseak, ikasketa lagundua, pastoral eta aisialdiko ekintzak eta kirol eskaintza handia.